



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Ostirala
2008-04-18**

VI. URTEA 1.411. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

ALBERTO IÑURRATEGI MENDIZALEA

«Lehen beste mendizale maila bat zutela euskaldunek argi daukat»

LEITZA Bihar bere anaiaren omenezko 'Hire Himalaya' ikus-entzunezkoa eskainiko du herriko zineman

MENDIZALEAK «Munduko mendizalerik onenak ez daude 8.000 metroko mendien lasterketa horretan», dio 7



N. GARZIA

Gipuzkoako Txapelketa Teddy Martinezentzat

VILLABONA Danena-Olaederra taldeko beste pultsulari bat, Ekaitz Kortajarena, txapeldunorde 6

PELLO ARZALLUS ETA JABIER DORRONSORO
BIDEGOIANGO ALKATEA ETA ALKATEORDEA

«Udaletxe batek gardena izan behar du, eta kontuak garbi izan»

BIDEGOIAN Alkate eta alkateorde berriak dira Juan Ugarteri zentsura mozioa aurkeztu ostean 4

Poltsikoko Antzerki Lehiaketa, hirugarren kanporaketan

ADUNA Gaur izango da, 22:30ean; eskualdeko bi talde ariko dira 6

XVI. Ibilaldi Neurturen izena emateko epea zabaldu dute dagoeneko

BERASTEGI Maiatzaren 4an izango da, Basurde kirol elkarteak antolatuta 5

Z Zurea da hitza 

Atal honetan zuen kezak, iradokizunak, eskertzak... argitaratuko ditugu ostiralero. Horiek guri helarazteko hainbat bide dituzue: Interneten, 'www.tolosaldeko hitza.info' webguneko 'zurea da hitza' atalean; e-mailez, tolosaldean@tolosaldeko hitza.info helbidean eta telefonoz, 943 655695 zenbakian.

Ibarran parking berria

IZASKUN APEZTETXEA ETA
JESUS MARI ODRIOZOLA

Gure herriko Udalarri guretzako premiazko eskaera egin nahi diogu, gaztelaraz «*petición urgente al ayuntamiento de Ibarra*».

San Bartolomeko plaza oinezkoentzat omen da baina bai zubia, bai beste sarrera erabat irekita daudela aspaldi honetan. Nora begira egoten zarete zuen bileretara etortzen zaretenean? Edo Udaleko leihotik begiratzen duzuenean?

Ez dago inongo seinalerik plaza oinezkoentzat bakarrik dela azaltzen denik, eta ezta kotxeentzako lurreko oztoporik ere. Plaza kotxez gainezka daukagu horrek da-



Ibarrako San Bartolome plaza. IZASKUN APEZTETXEA/JESUS MARI ODRIOZOLA

karren arriskuarekin herritarrentzat, batez ere umeentzat. Frontoian ezin dute pelotan jolastu. Kultur Etxera doan aldapatxoan ere askotan kotxeak egoten dira

aparkatuta... Lehenbailehen egotzera hau konpontzea eskatzen zaitzue eta ea herritarrok gure plaza errespetatzen ikasten dugun deion mesederako izango baita.

TAO makinaren inguruko galdera

Galdera bat daukat egiteko: Zergatik ezin dut ordaindu TAOren txarteltxoa nahi dudan orduan? Izan ere, gauze (ez dakit ziur ze ordutik aurrera) itzalita egoten dira makinak, eta orduan ezin dut txartela erosi. Beraz, nik autoa gauzez aparkatzen badut, eta hurrengo eguneko TAO txartela jarri nahi badiot autoari, ezin dut, eta hurrengo egunean 09:00ak baino lehen joan beharra daukat makinara txarteltxoa erosi eta autoan jartzera. Zergatik gertatzen da hau? Ziur niri baino gehiagori gertatu izan zaiela. Zergatik itzaltzen dituzte makinak? Mesedez erantzun dezatela, ez baitiot zentzurik bilatzen.

Jose Antonio. Tolosa.

Otsabitik Pasmus baserri aldera doan bidea konpontzen ari dira

Billabonatar bat naiz eta eskerrak emateko idazten det, azkenean, hainbeste urteren ondoren, Villabonatik, Otsabi auzotik hain zuzen ere, Pasmus baserri aldera eta Komizargero merendero aldera dijonan bidea konpontzen ari baitira. Egia esan errepidearen erdian beste espaloai bat zegoela zirudien, sekulako zuloak zeuden bidean urterik urte handitzen zihoazena, eta egunotan breatu eta konpondu egin dute. Eskerrak emateko da bertatik ibiltzen garenak asko ez izan arren, ez gara inor baino gutxiago eta eskertzen dugu kontuan hartzea.

Arantxa. Villabona

Udaberri kulturala



» Kale kantoitik

Joxemi Saizar


Ez nuen uste kantari baten kontzertuak halako eztabaida sortuko zuenik bere nazionalitatearengatik. Negu Gorriak, Soziedad Alkoholika eta Berri Txarrak euskal musika taldeen aurkako boikota gogorazi dit eta horrelakoak gure artean bukatu zirela uste nuen.

Udaberria eta udazkena izaten dira urte sasoirik oparoenak, gure artean behintzat. Ikusi besterik ez dago, adibidez, aurreko larunbatean programatutakoak: KMK08ko azoka, Naturaldiako bisita Samaniegora eta eguzki labeen erakusketa, omenaldiak Lakunza eta Otero kirolariei, dantza Leidorren, kontzertuak Santa Klaran eta Bonberenean, kick boxinga Villabonan, spinning maratonia Ibarran, omenaldia Iruran, AHTren aurkako bizikleta martxa, zine festa... As-teburu hau ere ez da atzean geldituko, gaur Araujo eta Delibesi egingo zaion omenalditik hasita Dantzari txiki eguna, Bandaren kontzertua, Bonberenean, antzerkia Zizurkilen, bertso-afaria Amasan, moda desfilea Villabonan, zine eta dokumental festa... Udaberri kulturala kompletua?

Heriotza berriro inguratu eta euskaltzale bat eraman du berarekin: Axun Aierbe. Galtzaundiren sorreran eta lehen urteetan ezagutu nuen eta langile porrokatua, pertsona alaia, gaztea eta euskaltzale handia bezala definituko nuke. Zeregin horretan jarraitzeko lagun bat gutxiago.

@ Inkesta. «Tolosaldean bigorria zabaltzen ari da: dagoeneko Tolosatik ikaztegieta joan daiteke bigorritik. Erabiltzen edo erabiliko al duzu?». Hau xe da gure webgunean proposatzen dizugun galderetako bat. Sar zaitez eta eman zure botoa, eta nahi izanez gero ere iritzi emateko aukera ere baduzu. Hauek dira orain arte jaso ditugun emaitzak galdera horren inguruan:

www.tolosaldeko hitza.info



Jesusen Bihotzako ikasleen bisita

JESUSEN BIHOTZA IKASTETXEA

Villabonako Jesusen Bihotza Ikastolako ikasleak gara. Leaburura joan berri gara, Mahala baserriera. Lehendabizi ikulua bixitatu dugu eta bertan zeuden behiak nola jaten duten ikusi dugu. Ondoren, txekor txikiak ikusi ditugu eta gu han geundela txekor berri bat jaio da. Ondoren lantegira igo gara eta bertan egiten dituzten produktuak ekoizpen prozesua adi-adi jarraitu dugu (yogurtak, gazta, txerriak...) eta primeran pasatu dugu. Amaitzean, Luixak gazta eta txorixo goxoa eman dizkigu probatzeko, baita etxera eramateko yogurtak ere.



Jesusen Bihotza ikastolako ikasleak. HITZA

Gutunak

Eider eta Hector-i errespetuz

«Noa abeslaria da. Noa abeslari gisa dator Tolosara. Ekitaldi arrakastatsu hau politikaz zikintzea lekuz kanpo dago. Herritar bati, bere gobernuaren basakeria edo legitimotasun gabe herriaren izenean jarduten den talde terrorista baten jarduna egotzea ez da justua. Noari Israelgo Gobernuaren zapalkuntza egotzi nahi zioten. Muguruzari legitimotasun gabe baina herriaren izenean erailtzen duen talde baten bortizkeria egotzi nahi zioten.»

Behin eta berriz irakurtzen ditut egin nituen baieztapenak eta oraindik ezin dut ulertu nondik ondorioztatzen zutenen, Espin jauna eta Elduaien anderea, ekialde hurbile-

ko gatazkan banengo «sionista demokratikoa» nintzatekeenaren ideia. Bide batez, baieztapen eta alderaketak horiek egin nuen «tamainako erridikuloaz» ez nintzela jabetzen gaineratzen zenuten.

Baina lasai, zuen ustez hain guay-ak garen abertzaleak, ohituak gaude egun batean «españolak» izatera, beste batean faxistak, hurrengoan etakideak, eta gaurkoan «sionista demokratikoa». Baina betan eta errespetuz, inoren beainkapena jasotzeko inongo bein harrik ez dugula jakizue. Esaten eta pentsatzen ditugunak ondoko ezagutzen ditugula, inoren ITV ideologikorik pasa behar gabe.

Errespetuz baino «sionista» deitzen nauzue. Eta horren ondoren, nik esandakoekin zer ikusirik ez

duen «helburuak eta bitartekoak» inguruko hausnarketa politikoa egiten duzue. Hau da, eskutitz bat idazten duzue ez naizena naizela esateko eta gero aipatu ez dudak gai baten inguruan jarduteko. Habilidade behar da gero... baina errespetuz beti.

Bukatu baino lehen dudatxo bat. Zuen eskutitzan, herri batek sufritzen duen zapalkuntzaren erantzun moduan darabilen biolentzia legitimoa, boteretsuek kriminalizatu eta terrorista gisa definitzen dutela salatzen duzue. Nere ustez ere, herri batek sufritzen duen zapalkuntza jasan ezina delako, armak hartu behar direla erabakitzen badu, horri terrorismoa deitzea lekuz kanpo dago. Ados. Baina nola deitzen diozue herriak eran-

tzun gisa indarkeriarik onartzen ez duela ozen dionean, borondate hori zapaldu, eta bere izenean langile bat tiroz erailtzen duen talde armatu baten jarduerari? Terrorista gutxienez bai, ez?

Galdera botatzen dut, izan ere, unetxo batez iruditu zait ETAREN jardueraren armatua, herri batek bere autodefentsan legitimoki egin dezakeen alderatu duzuela. Eta larritu egin naiz. Larritu alderaketan egin daitekeen erridikuloaren tamainaz ez jabetzea kutsagarria izan daitekeela pentsatuz. Errespetuz.

Besterik gabe agur, Espin eta Elduaien jaun-andreak.
Andoni Iturzaeta (Tolosako Udaleko kultura zinegotzi eta hautetsi independentista). Tolosa.

K Kirol jarduera

Gaur

Areto futbola

■ Usabalgo kantxa nagusian lehiatuko dira Laskoraingo neskek, Axular taldearen aurka, 20:30ean.

Bihar

Areto futbola

■ Gipuzkoako Ligaren baitan, Laskorain eta Azpeitiaren arteko partida izango da Usabalgo beheko kantxan, 16:00etan.

Es kubaloia

■ Tolosa eta Donibaneren arteko partida kantxa nagusian, 17:30ean.

Futbola

■ Berazubín, 16:30ean, hirugarren mailako Tolosak Amurrioren arteko partida jokatuko du.

■ Usabalgo zelaian, ohorezko infantil mailakoen partida izango da 10:00etan. Tolosa CFkoek Hernani izango dute aurkari.

■ Kadete mailako Tolosa CFkoek Intxurren aurka jokatuko dute partida, 12:00etan Usabalgo zelaian.

■ Tolosa CFko emakumezkoen taldeak Zarautz izango du aurkari, 15:30ean.

■ Ohorezko kadete mailako Tolosa CFkoek Añorgaren aurkakoa izango dute, 17:30ean Usabalgo zelaian.

Pilota

■ GRAVN Txapelketako partidak, 16:00etatik aurrera Beotibar pilotalekuan. Afizionatuen mailako Gipuzkoako, Bizkaiko, Arabako, Nafarroako eta Errioxako garrantzitsuena da pilotarien artean.

Etzi

Saskibaloia

■ Saskibaloitza teknifikazioarako jardunaldiak izango dira Usabalgo kiroldegiko kantxa nagusian, 10:00etatik 12:00etara.

Astelehena

Pilota

■ Beotibarren, I. mailako banakako txapelketako partida, Beloki eta Olaizola laren artean, 16:30ean.

E Elkarrizketa

JOAQUIN ARAUJO › Naturalista

«Aldaketa kultural bat eman beharra daukagu»

Natura › Miguel Delibes eta Joaquín Araujo omenaldia egingo diote gaur, Naturaldiaren baitan, Tolosako udaletxean; ondoren hitzaldia eskainiko dute bi naturalistek.

IÑIGO TERRADILLOS

Naturaldia jardunaldien baitan, gaur, 19:30ean omenaldia egingo diote Joaquín Araujo eta Miguel Delibes de Castro naturalista ezagunei udaletxeko batzar aretoan. Naturaldiako antolatzaileak eta Udaleko ordezkariak izango dira omenaldian. «Naturaldiarekin urtetan izan duten harremana eta ia bizitza osoa natura defendatzen eta ikertzen aritu izana» dira Araujo eta Delibes omentzearen arrazoiak. Ondoren, omenduek *Ingurumenaren geroa, gure esku* gaiaren inguruan hitz egingo dute. Joaquín Araujok (Madrilen jaioa, baina azken urteetan Extremaduran bizi da naturarekin erlazio zuzenean, 1947) azaldu digu nolakoa izango den gaurko hitzaldia, eta «oso pozik» dagoela omenaldia-rengatik ere aipatu du. 30 urte daramatza ekologiaren alde lanean, 78 liburu eta 2.000 artikulua baino gehiago idatzi ditu, 27 sari jasotatu, eta horien artean, ONUren Global 500 saria Ingurugiro Saria.

Ingurumenaren geroa gure esku dagoela azalduko duzue gaurko hitzaldian.

Bai, hala da. Saiatuko gara klima aldatetaz, uraren krisiaz... ezohiko hitzaldi bat egiten, eta hitzaldia baino gehiago Miguel Delibes de Castro etanire areko elkarrizketa izango da. Elkarrizketa edo iritzi



HITZA

trukaketa. Elkar ondo ezagutzen dugu, izan ere, bai Zumardín, bai eta Naturaldian askotan hartu izan dugu parte biok, eta lagunaren arteko elkarrizketa irekia izango dela esan daiteke.

Zer uste duzue egin behar dugula ingurugiroa zaintzeko?

Nik urte hauetan guztietan ikusi dudana gaitik, uste dut aldaketa bat egin beharra dugula, kultura aldatzea, hain zuzen. Izan ere, duela 40 urte aurrekoak zirenak bete egin direla ikusi ahal izan dugu, beraz, aldatu egin behar dugu jokatzen dugun modua.

Gure esku dago egoera aldatzea.

Bai. Konturatu behar dugu gure esku dagoela egungo egoera aldatzea, gure ardura dela. Beraz, arduratu eta morala dugula hartu behar dugu kontuan, eta esan bezala egungo egoera guk molda de-

zakegula. Beraz, nire ustez erabat bidera ezina den egoera honetatik ateratu gaitzeko, baina kontsekuente izan behar dugu norberak duen erantzukizunaz.

Emango duzuen hitzaldiaren aurretik omenalditxo egingo dizue Naturaldiaren urteetan egindako lanarengatik eta jardunaldietan parte hartzeagatik. Zer sentituz duzue?

Oso pozik nago, izan ere Tolosarekin sentimentu berezia dut, bai nik bai eta Miguel Delibes de Castro. Urte asko dira jardunaldi hauetan parte hartzen, 15 edo 17. Lagun ugari egin ditugu, eta horregatik berezia da niretzat Tolosa. Herriarekin eta Naturaldiaren antolatzaileekin dugun erlazioa oso berezia da, lagunartekoa. Beraz, etxean bezala sentitzen naiz ni Tolosara joatean.



Azken saioaren une bat. HITZA

Galtzaundik antolatuta, Poesia Errezitaldia gaur, Leidorren

Kultura › Tolosako Laskorain, Hirukide eta Orixe eta Baionako Bernat Etxepare ikastetxeetako ikasleak ariko dira.

ERREDAKZIOA

Galtzaundi Euskara Taldeak, Tolosako Udalarren laguntzarekin, Poesia Errezitaldiaren laugarren edizioa antolatu du. «Poesia eta sentimentuen mundua ezagutzeko eta olerkiak euskaraz gozatu daitezkeela adierazteko», Tolosako eta Iparraldeko ikasleek saio artistikoa eskainiko dute gaur, 18:30ean, Leidor aretoan.

Antolatzaileek azaldu bezala, «duela bi urte garbi geratu zen gazteek ere badutela zer esana poesia munduan». Musika, irudiez eta dantzaz lagunduriko poesia emanaldi honetan Tolosako Hirukide-Eskolapioak ikastetxeke, Laskorain Eskolako eta Orixe Institutuko ikasleek eta hauekin batera Baionako Bernat Etxepare Lizeoko ikasleek parte hartuko dute.

Maitasuna, natura, bizitzaren legea, Euskal Herria eta abar izan dira ikasleek olerkietan landu dituzten gaiak, eta beraiek sortutako musikarekin lagunduta entzun ahal izango dira gaur, Leidor Aretoan.

H Hilberriak

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldekohitza.info / Tel.: 943-65 56 95

JAVIER UGARTE 'GOTERAS'

Pintxana txarangako zuzendaria
Pin-Pin Pintxanatarra zu zinan,
Pin-Pin-Pintxanatarra beti.
Umore onarekin, beti zuzendaritza
zu bezalakorik ez baita egongo

Tolosako herrian.
Agur bero bat.

Pintxana txaranga



TOLOSAN
2008ko apirilaren
18an

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

902 402 900
zerbitzu iraunkorra

BULEGOAK: Andoain · Donostia (Bellatokia)
Errenteria (Bellatokia) · Hernani (Bellatokia)
Lasarte (Bellatokia-Sulabea) · Pasaja
Tolosa (Bellatokia)

E | **Elkarrizketa**

PELLO ARZALLUS ETA JABIER DORRONSORO | Bidegoiango alkatea eta alkate-ordea

«Udaletxe batek gardena izan behar du, eta kontuak garbi ibili»

Bidegoian » Pello Arzallus eta Jabier Dorronsoro dira alkate eta alkate-orde berriak herrian. Zentsura mozioa aurkeztearen arrazoiak bilera baten bidez argituko dituzte.

NEREA URBIZU

Bidegoiango alkate berria Pello Arzallus da (Bidegoian, 1961). Zentsura mozioa aurkeztu zioten Juan Ugarteri joan den martxoaren 25ean: alkateorde, berri, Jabier Dorronsoro da (Bidegoian, 1971). Biak ere joan den urteko hauteskundeetan sartu ziren Udaletxean. Elkarrizketaren hasieran biek argitu zuten, «EArean zerrendan zeudela baina independenteak direla, eta ez EAkoak».

Beraz, Bidegoiango alkate berria ez da EAkoa?

Pello Arzallus. Ez. Sei zinegotzi independenteak gara eta Juan Ugarteri EArena.

Martxoaren 25eko ezohiko bilkuran herritarrek Ugarteri alkate ez jarraitzearen arrazoiak eskatu zituzten.

Jabier Dorronsoro. Aurrena eta hasteko, joan den urteko maiatzeko zerrenda osatu ezinik zebilen Ugarteri, eta guri osatzeko proposatu zigun. Ugarteri, orduan esan zuen, alkate bezala beste urteren bat-edo egingo zuela, baina jada nekatu xamar zegoela. Nekatuta zegoenean, eta udaltaldeko baten bat alkate izateko prestatuko balitz, alda zitekeela, alegia. Hori esan zuen orduan.

P. A. Joan den martxoaren hasiera izango zen zazpi zinegotziak bildu egin ginenean, eta Ugarteri alkate-tzan aldaketa egiteko proposamena egin genionean: Ugarteri ez zuen trabarik jarri orduan.

Zentsura mozioa aurkeztearen



N. URBIZU

arrazoia, «konfidantza falta» izan zen.

P. A. Maiatzetik aurrera hasita konfidantza hori galduz joan da, gero eta gehiago. Azkenean erabaki genuen udaletxean berarekin biltzea alkatetzat aldatzeko esateko, eta arazorik gabe, ados zegoela esan zuen Ugarteri: eskua ere eman genion elkarriri. Handik aste batera beste bilera bat egin genuen eta aurrera jarraitzea erabaki genuen denok, erabaki horrekin. Karguak banatzeko agiriak ere elkarri zituen, aldaketak egiteko. Elkarrekin afaldu genuen eta bukaeran, Udaletxea Udaletxea dela, eta kalea, berri, kalea dela aipatu genuen, harreman onaren alde-edo. Baina hitza hautsi zuen: dimisioa eskatu behar zuen alkate bezala bilkuran, eta gurekin adostu izan ondoren bilkura atzera botoa zuen. Azkenean erabaki genuen zentsura mozioa aurkeztea.

Herritarren artean iskanbila sortu da?

P. A. Iskanbila nik uste dut Ugarteri

tek bilatu duela. Guk ez dugu azalpen handirik emango. Jende dezentetorri zen bilkura eta ez genuen azalpen gehiegirik eman sorzitekeenarengatik. Egun hura, gainera, ez zen horretarako. Jendea gogoarekin geratu zen, zer pasa den jakin nahian. Paper anonimo batzuk azaldu ziren Albizturren, Beizaman, Errezilen... esanez alkatetzaren lapurreta izan dela Bidegoiangoa. Guk ez dugu ezer lapurtu, aldatu baizik.

J. D. Jendea berotuta etorri zen: guk uste dugu Ugarteri berak deitu zituela. Egin dugun emana bilkuran adierazi genuen bilera informatibo bat egingo genuela herritarrentzat. Hau hemendik aste pare batera egingo dugu azterdu jota. Dena dela, herritarrei abixua pasako diegu ordua eta eguna zehazteko. Bilera honetan arrazoiak emango ditugu.

Nondik dator konfidantza ez hau? Zertan dago erroa?

P. A. Guk gure udaletxeko garai hau ikusi dugu eta trapu zikinak

ikusi ditugu. Atzerakoa ere ikuskatu dugu eta joera berdina ikusten dugu; beste garai batean ere izan ziren arazo batzuk (gu garai hartan ez geunden Udaletxean eta orduan gauza horiek urrutitik ikusten dira). Beste legealdiren batean zinegotzi batzuk ez ziren beti azaltzen bileratan, lanarengatik, esaterako. Hauek kargu guztiak Ugarteri gain utzi zituzten, eta berak orduan eramaten zuen martxa guztia. Dena dela, ez dugu prentsan orain trapu zaharririk kontatuko: lehenengo herritarrei esan behar zaizkie, inori baino lehenago.

J. D. Juan Ugarteri 11 urte alkate egon zela esan zuen, baina ez zuen esan aurreko legealdiren batean bi zinegotzilik bere dimisioa eskatu ziotela. Ez ziren adostasunetara iristen haien artean. Bi zinegotzi hauek ere gauza susmagarriak edo, ikusi zituzten eta azkenean beraiek egin zuten alde Udaletxetik.

Jendeak jakin egin nahi du.

P. A. Herritarrek jakin nahi dute

zer pasa den, eta somatzen dugu jendeak trapu zaharrak ateratzea nahi duela. Bilera egin behar genuenean esan genuen: «hemen ez dugu trapu zaharririk aterako, ez du merezi, ezta komeni ere». Baina berak bilatu du, eta esan egin beharko ditugu. Trapu zaharrak aterata ez zait iruditzen horregatik gu hobek izango garenik. Gure asmoa ez zen hori, baina Ugarteri eraman gaitu bide honetara. Egia da ere, herritar batzuk, alkatea aldatzea nahi zutela.

Gaur egun, karguak banatuta daukazue?

P. A. Bai, banatuta geneuzkan zazpi en artean. Ugarteri aurreko ohi-turekin jarraitzen zuen alkate zenean, berak bere kasa lana eginez, bera bakarrik erabakitzen, hain zuzen. Guk hala ikusten dugu. Zinegotzi bezala ez dauka kargurik.

Zentsura mozioa ez da azken soluzioa? Ez da gogorra?

P. A. Niretzat ez da gogorra. Hor dago eta aplikatzeko, ezta? Beste irtenbidea gu denok joatea zen. Udaletxeak gardena izan behar du, eta kontuak garbi ibili. Erabakiak denen artean hartu behar dira. Beste zinegotzietatik errespetua behar zaie eta informatuta eduki.

J. D. Berak bakarrik erabakiak hartu eta gu hurrengo astean enteratu erabakitaz? Horiek ez dira moduak, horrela ez da herri bat aurrerara eraman.

EA zuegana zuzendu da?

P. A. Bai, bi etorri ziren zentsura mozioa aurkeztu genuenean. Zer pasatzen zen galdetu zuten: nik, Ugarterengana joan zitezela esan nien, bera baita EAkoa. Hori izan zen.

Bukatzeke, zein dira herriaren beharrak?

P. A. Arau berritatzailleekin gabil-tza, haur eskolarekin ere bai. Ura-ekin lotutako asuntxoak ere badaude, sondeo batzuk eginda daude, eta zaharkituta dago dena. Lehenik azpiegiturak hobetu behar dira, gutxiengoak lortu behar da. Gasa herri guztiarentzako jarri behar da: orain dauden zisternak behin behinekoak dira.

J. D. Goiazko eta Bidaniako frontoiak ere aldatu beharko liriateke, egoera kaxkarrean daude-eta. Baserrietarako bideak hobetu behar dira. Baina betikoa: diru falta dago. Hiru urtetarako gauza asko dira.

txokoa
h

2 sarrera pare zozketan

Irabazleak:

- Txaro Fernandez Gonzalo (Ibarra)
- Tolosako Inmakulada Ikastetxea (Tolosa)

Europako errekopako eskubaloi kanporaketa

AKABA BERA BERA
Rulmentul Urban Brasov
LARUNBATA
APirilak
19 • 16:30
Donostiako Bidebieta Kiroldegian



EMAKUMEZKO ESKUBALOI TALDEA

Azkenean bai!



» Zilarrezko Jaurtiketa

Jon Altuna

Urriaren 7an jokatu genuen etxetik kanpora irabazi genuen azken partida, eta aste honetan garaipen sentsazio horretaz gozatu ahal izan dugu. Taldeak aurreko astean garaipen landua lortu zuen Alavesen aurka euskal derbian eta aste honetako garaipenak jeitsiera postuak hamaika puntura uztea bideratu du. Bederatzi partida geratzen dira eta lau puntu behar ditugu. Lortu ez badugu ere esan daiteke salbazioaren helburua eskura dugula.

Etxetik kanpora irabazitako hiru partidetatik bi andaluziar lurraldeetan lortu ditugu, beraz, esan dezakegu ondo doa gure lurraldea dela. Aste honetan Cordo-

ban (Andaluzia) izan ginen. Hiri benetan polita, aitzinan izandako arabiar kutsu hori oraindik ere mantentzen duena. Horren adibide garbia bertako mezquita, erakuntza historiko eta ikusgarria eta turisten bilgune puntu dena. Hiri honen inguruan bada aparteko estatistika bat; antza, espainiar penintsulako, Euskal Herria barne, neskarik ederrenak bertakoak omen dira. Estatistikak estatistika, ez dakit batek bere herrira egiten duela.

Pilotaren aipua egin gabe ezin amaitu, buruz buruko hasia da eta sorpresa nabariena Aritz Begino izan da. Hala ere, aste honetan hasien dira benetako partidak eta bertan gipuzkoar bakarra denez bere alde egin beharko. Ea Peñagarikanoz gauzak zailtzen dizkion Irujori eta sorpresa handi bat emateko gai den. Hala ere, Irujok irabaztea ez legoke gaizki aspaldian ikusi gabeko Aimar-Irujo bat ikusteko aukerak bizirik jarraituko bailuke.

Laburrak

Ipuin kontalaria apirilaren 22an Kultur Etxean

IARRA • Udal Liburutegiak Liburuaren Egunean, datorren asteartean, apirilaren 22an, Kultur Etxean ipuin kontalari saioa antolatu du 17:30ean. Lur Kortak *Ipuinekin jolasean* saioa zuzenduko du 4-10 urteko haurrentzat.

Errioxara irteera Gaztainondo elkartetik

BERASTEGI • Gaztainondo Jubilatuta Elkarteak egun pasa antolatu du Aldeanueva de Ebroa (Errioxa) apirilaren 24an. Egundateko irteerara joan nahi duenak Gaztainondo elkartearen eman beharko du ize- rna.



Mendizale ugari bildu ohi da Berastegiko ibilaldi neurtuan. JOXEMI SAIZAR

Berastegiko XVI. Ibilaldi Neurtuan izena emateko epea zabalik aurkitzen da

Mendia » Maiatzaren 4an, igandean, kirola egiteaz gain Berastegi inguruko kultura ezagutzeko aukera izango dute mendizaleek.

teko epea zabalik dago eta hiru aukera jarri dituzte antolatzaileek.

Izena emateko 3 modu

Maiatzaren 4ean, igandean, egingo den Berastegiko XVI. Ibilaldi Neurtuan parte hartu nahi duenak Zelai tabernara dei dezake izena emateko, 630 80 60 80 zenbakira. Bestalde, ibilbidearen abianpuntu bertan izena eman ahal izango da. Azkenik, *basurde@komunikazioa.org* helbidera mezu bat bidalita ere parte hartu ahal izango da. Azken aukera honetan, izena, 2 abizenak, urteak, herria, probintzia eta Federatua den ala ez jarri beharko da.

6 ordu eta erditik 8rako ibilaldia Ibilaldia Berastegiko plazatik abiatuko da 07:00etan, gero ostera bertara itzultzeko. Ibilbidean naturaz eta Leitzarango eta Berastegiko ibarrek eskaintzen duten «xarmaz gozatzeko» aukera izango dute 5 euroren truke izena ematen dutenek. Horretaz gain, Urepel, Mandoegi, Abadegurutze, Ipuliño, San Lortzo eta b. bezalako mendi tontoretatik ikusten diren «paraje zoragarriekin asebeteko gozamen» jasoko omen dute mendizaleek.

Ibilbidearen amaieran parte-hartzaile guztiei diploma oroigarri bat oparituko diete.

ASIER IMAZ

Basurde kirol elkarteak Berastegiko XVI. Ibilaldi Neurtua antolatu du maiatzaren 4an. Kirol elkarte-ko kideen esanetan, «kirolaren praktika bultzatzeko eta Berastegi inguruko kultura ezagutzera emanaz, egun bat ondo pasatzen laguntzeko asmoarekin» antolatu dute ibilbide neurtua. Izena emateko epea zabalik dago eta hiru aukera jarri dituzte antolatzaileek.

hazi nahi duten pertsonentzat

Gizarte parte-hartzeari buruzko prestakuntza-ikastaroak

Ikastaro guztiak bi orduko hiru saiotan egingo dira, asteartetan, asteazketan eta ostegunetan, 19.00etatik 21.00etara.

Donostialdea: maiatzak 6, 7 eta 8 Donostia: Lagartzi Kultur Etxea	Goierri: maiatzak 6, 7 eta 8 Ordizia: Barrena Kultur Etxea
Tolosalde: maiatzak 13, 14 eta 15 Tolosa: Antonio M. Labaien Kultur Etxea	Urola Garaia: maiatzak 13, 14 eta 15 Zumaya: Zelai Añel Kultur Etxea
Garsoalde: maiatzak 20, 21 eta 22 Errenteria: Reina Aretza	Urola Erdia: maiatzak 20, 21 eta 22 Apetzi: Sindikatu Zaharretako Aretza
Buruntzaldea: maiatzak 27, 28 eta 29 Hernani: Bizen Kultur Etxea	Urola Kosta: maiatzak 27, 28 eta 29 Zasuta: Sanz Enea Kultur Etxea
Bidasoa-Txingudi: ekainak 3, 4 eta 5 Iruin: Anasía Kultur Zentroa	Debabarrena: ekainak 3, 4 eta 5 Eibar: Perleña Kultur Etxea
Debagoiena: ekainak 10, 11 eta 12 Aizasua: Kulturatz Kultur Etxea	Donostialdea: ekainak 10, 11 eta 12 Donostia: Udal Liburutegi Etxeko Aretza

Izena emateko

Ikastaroak doan dira, eta izena emateko Baketik-ekin harremanetan jartzera baino ez duzu ondorengo bide hauek erabili.

943 25 10 05 partehartu@baketik.org www.baketik.org

Parte hartzen pertsona eta gizarte moduan hazten gara





Pedro Mari Otaño eskolako ikasleen emanaldiaren une bat. AINHOA LARREA

Herriko antzezle txikien txanda izan da

ERREDAKZIOA

Zizurkilgo VI. Antzerki Astearen baitan atzokoan herriko antzezle txikien txanda izan zen. Herrian antzerkiak duen jarraipenaren lekuko, Pedro Mari Otaño eskolako ikasleek emanaldiak egin zituzten Atxulondo kultur etxean.

Gaur eta bihar kale antzerkiak ikusteko aukera izango da. Arturrello di Popolok gaur egingo du emanaldia, 19:30ean, Joxe Arregi pla-

zan. Biharkoan Trapu Zaharra taldeak *Visa Vis* antzezlan emango du 22:30ean Zizurkil Goiko plazan. Bi emanaldiak dohainik izango dira.

Igandean batez ere haurrei zuzendutako antzezlanak ikusteko aukera izango da Intxaur frontoan. *Xurdir eta Gorringo lakuarren misterioa* ikusi ahalko da, 17:00etan. Sarrerak 5 euro balioko ditu.



Kutxako kutxazaina kiskalita gelditu da. HITZA

Kutxako kutxazain automatikoa erasotua

ERREDAKZIOA

Zizurkil Behean dagoen Kutxako kutxazain automatikoa erasotu zuten herenegun gauetan eta horren ondorioz kiskalita gelditu da. Ezezagun batzuk eraso aldarrikatu dute, «Zizurkilgo udal antide-mokratikoak, EAE-ANVK boto

gehien lortu arren udaletik kanpo baitago, herriko bi plazen izena aldatzeko erabakia» salatuz. «Joxe Arregi eta Jose Luis Ttottonen izena daramaten plazei izena aldatzea onartu duten honetan gure haserrea eta amorrua azaldu nahi dugun».

Idatzian azaltzen dutenez, «gogor salatzen dugu EAJ, EA eta IU-Aralar alderdien jarrera, PP eta PSOE bezalako faxistei eskutik heldu eta gure herriaren aldeko borrokan bizia galdu dutenei bizkar emateagatik». «Horrelako erabakiak hartzen dituzuen bitartean parean izango gaituzuela borrokarako prest», gaineratu dute erasoak aldarrikatu dutenek.

LANA

■ **Iturgina.** Iturgin lanetarako pertsona behar dugu. Interesatuak deitu ondorengo telefono zenbakira: 685 22 70 58.

Iragarki laburrak

Gipuzkoako txapelketa lortu du Teddy Martinezek

Halterofilia » Danena-Olaederra taldeko beste pultsulari bat, Ekaitz Kortajarena, izan da azpitxapeladuna.

ERREDAKZIOA

Zarautzen jokatu berri den Gipuzkoako Senior Txapelketan, Danena-Olaederra Halterofilia Taldeko Teddy Martinez txapeladuna izan da eta Ekaitz Kortajarena azpitxapeladuna. Bakoitza bere mailan, Martinez 85 kilokoetan eta Kortajarena 69 kilokoetan, lehenengo sailkatuak izan ziren. Taldeko Daniel Legorburu lehenengoa izan zen 105 kiloko mailan, Patxi Hernandez bigarrena izan zen 69 kiloko mailan eta Aritz Salaberria ere bigarren izan zen 77 kiloko mailan.

Eskualdeko pultsularietako parte hartu berri dute Basaurin (Bizkaia) jokaturako II. Liga Kade-



Igor Galludo pultsularia ahaleginetan saio batean. HITZA

te-Promesa lehiaketan. Kadeteetan, taldeko sailkapenean Gipuzkoa izan zen lehena eta bertan parte hartu zuten Julen Intxaustik, Jokin Urkizuk, Koldo Sarachok eta Adrian Sasiainek. Banakako sailkapenean lehenengoa Julen Intxausti izan zen eta bigarrena Jokin Urkizu izan zen. Promesen mailan, Gipuzkoa bigarrena izan

zen taldekako lehiaketan eta bertan parte hartu zuten Asier Gallekok, Igor Galludok, Kellyam Quintanak eta Unai Calvok.

Bihar Euskadiko Junior Txapelketajokatuko dute. Iruñeko Anaitasuna Elkartearen izango da, 17:00etan. Espainiako Txapelketara begira aurreko fasea izango da.

Poltsikoko Antzerki lehiaketaren hirugarren kanporaketa, gaur

I. GARCIA

Asvineak antolatutako Poltsikoko Antzerki Lehiaketaren hirugarren kanporaketa egingo dute gaur Asvinean bertan, 22:30ean. Eskualdeko antzezleak parte hartzen duten bitalde ariko dira: Tolosako Kultur Etxeko antzerki tailerretakoek *Adulteroa* obra antzeztuko dute eta Kristina Roperoto losarrak parte hartzen duen Autoeskuela taldeak *Ipokresia* lana antzeztuko dute. Parte hartuko duten beste hiruk Argi taldea *Enfentadas* lanarekin, Los Kukis taldea *La vida es puro teatro* obrarekin eta Irri Makila taldea *La Madre* lanarekin.

Beste kanporaketetan bezala gonbidatutako artista bat izango da. Gaurkoan, Julen Cobos kanpautorearen abestiez ornitutako gaur izango dute.

Tolosako Kultur Etxeko antzerki taldearen izenean Carmen Jimenez tolosarra, Jon Olaetxea tolosarra eta Jeronimo Otaegi asteasuarra ariko dira. Elena Aranbarriren zuzendaritzapean prestatu dute. Aranbarririk azaldu duenez, «Kultur Etxeko tailerretik ekainean antzeztan motzak egin ditugu. Hirukote honek *Adulteroa* obra antzeztuko du eta Asvinean lehiaketan parte hartzera animatu nituen». Izan ere, «taula gainean aritzeko aukera gehiago ematen die horrelako lehiaketek», dio.

Umerezko lana da. Bertan gizonetako bat eta emakumetako bat hilerrian «ondo pasatzen ari direla» emakumearen senarra azaltzen zaie. «Animatuta daude», dio Aranbarririk. «Iaz parte hartu zuten eta finalerdira pasatu ziren».

Kristina Roperoto Autoeskuela taldearekin ariko da. Iruñeko Antzerki Eskolan aritutakoa, hango beste hiru aktoreekin ariko da obra antzeztzen. *Ipokresia* lanean drama eta ironia bateratzen dira eta hainbat gai ikutzen dituzte: gizartea, ametsak, gerra, erlijioa, politika... Izenak dioen bezala, itxurakieria du ardatz antzeztan.

Suyanema, aurrera

Bigarren kanporaketan epaimahaiaren botoa Bazen Behin Clown taldearentzat izan zen eta ikusentzulegoak Suyanema talde gazteluarrari eman zion bere babesa. Beraz, bi taldeak finalerdira pasa dira. Oraingoz, eskualdeko taldeetatik edo eskualdeko antzeztzeren bat dagoen taldeetatik Suyanema da bakarra finalerdietara pasatu dena.

Laburrak

Herriko festei buruzko bilera astelehenean

ANOETA » Herriko festei buruzko bilera antolatu dute astelehenerako, hilak 21. Ohi bezala, bilera udaletxean izango da, 19:00etan. Bilera horretan, besteak beste, azken loturak egin eta festetako kartel lehiaketako lan saridunak aukeratu dituzte.

Ukenduie buruzko ikastaroa antolatu dute

LARRAUL » Ukenduie buruzko tailerra antolatu dute. Ukenduak olioarekin eta argizariarekin egiten eta, esaterako, intsusa-ukendua egiten ikasiko dute. Ikastaroa maiatzean izango da eta irakaslea Pili Otaegi izango da. 943 693930 zenbakian eman daiteke izena.

'Sagutxo Perez' filma emango dute bihar

ALKIZA » Zinema emanaldia izango da bihar, 17:00etan, Kultur Etxean. Bebeburupe Guraso Elkarteak antolatuta du emanaldia. *Sagutxo Perez* izeneko filma emango dute bertan eta antolatzaileak esanetan, sarrera doan izango da herri-tar guztiak gonbidatzen dituzte.

E Elkarrizketa

ALBERTO IÑURRATEGI Mendizalea

«Lehen beste mendizale maila bat zeukatela garbi daukat»

Leitza » Alberto Iñurrategik bihar bere anaia-aren omenez egindako 'Hire Himalaya' proiektzioa eskainiko du, 18:30ean, herriko zineman.

NAIARA GARZIA

Alberto Iñurrategik (Eskoriatza, 1968), bere anaia zenari eskainitako dokumentala (*Hire Himalaya*) eskainiko du bihar, 18:30ean, zinemaren emanaldia IKAk antolatuko du, izan ere, Felix Iñurrategi ude-likastaroen 5 urtez irakasle bezala aritu zen lanean bertan.

Nola daramazu prentsarentzako pertsona famatu bat izatea?

Uste dut presentzia askotxorekin nabilela medioetan, eta intentzioz baino gehiago zeharkako modu batean. Deseroso sentitzen naiz nire burua medioetan hainbeste ikusita, ez dut gustuko, kontutuan izandagainera aspaldian ez dudala ezer egin.

Zer iruditzen zaizu mendiko ibilaldien inguruan egiten den jarraipena?

Kazetariak zailtasun handi bat dauka, berak zuzenean ezin duela ikusi igoera. Horri gehitzen badiogu, gainera, kriterio falta eta kirol honen inguruko ezagutza falta, horren guztiaren emaitza agerikoa da. Azkenean jotzen da gauzak puztuzte, eta mendizale askok ere aprobetxatzen dute ezjakintasan hori egin dutena puztuzteko eta bere modura kontatzeko. Uste dut oso puztua kontatzen dela mendi inguruko ibilien jarraipen hori. Edozein igoera tratatzen da munduan mendi mailan egin den puntako zerbaite bezala, eta Euskal Herrian uste dut oso bigarren maila batean gabiltzala mendizaleok.

Eta zein dabilta aurreneko puntan zuretzako?

Ingelesak, esloveniarrak, estatu-batuarrak, frantsesak... **Euskaldunak ez dira, beraz, erreferentzia bat?**

Euskal Herrian 70. eta 80. hamarkadan uste dut gauza askozaz interesgarriagoak egin zirela, Pirinioetan, Alpeetan, baita Himalayan ere, gaur egun egiten duguna baino. Hala ere orduan medio teknologikoek ez zuten aukera gehiegi ematen jarraipen zuzenagoak egiteko. Egia da orain askoz ere itzal handiagoa dutela mendiko ibilerek, baina lehen beste mendizale maila bat zeukatela garbi daukat,

teknikoki, beste planteamendu ausartagoak zituzten, askoz medio gutxiagorekin... Jende oso ausarta aterazen garai haietan.

8.000 metro igotzeko ez al da ausarta izan behar?

Horrela islatu da medioetan, horrela kontatu izan dugu mendizaleok ere. Ausardia behar da edozein mendi aktibitate egiteko. Pirinioetan, nahiz Alpeetan, Himalayan ere bai, baina nik uste dut, 8.000koetan, bide arruntetik igoerak saiatzeko ausardia beste behar dela aukerasortzea, finantzatu ahal izatea, taldearekin kontatu ahal izatea, urrats hori eman ahal izatea. Uste dut egiten zaion jarraipena eta ematen dugun kontakizuna ez datorrela bat gero mendizaleen mailan munduan egiten diren beste igoerekin.

Zuretzako mendizale on batek zer izan behar du?

Niretzako da zaletasun handia daukana eta mendira disfrutatzea

«Deseroso sentitzen naiz nire burua medioetan hainbeste ikusita, ez dut gustuko»

doana, bere mailako erronkak markatzen dituen mendian eta gero gauzak bizi izan dituen bezala kontatzen dituen. Hori da mendizale on bat. Gero puntako mendizalea da benetan igoera puntakoak egiten dituen, zailtasunari begira, konpromisoari begira, eta planteamendu arinekin. Horrek gaitasun bat eskatzen du eta edonork ez dago prestatua.

Hamalau 8.000ko egiteak mendizale on batean bihurtzen zaitu?

Munduko mendizalerik onenari-rikoak ez daude 8.000 metroko mendien karrera horretan, 14ak egiteko helburu horrekin, 6.000, 7.000 metroko mendietan baizik, edo Patagoniako 3.000 metroko mendietan... Baina hamalau 8.000koena pasako da. Hau bere-hala erreko den produktu bat da.

Eta gero zer etorriko da?

Ba etorriko da mendiko igoerak balio duten neurrian baloratze-ko



N. GARZIA

joera, hori espero dut behintzat. Nik uste dut kontu hauek ez direla masa handietara iritsiko, baina beste jatorritasun batekin eta beste kriterio batekin egingo dira.

Prentsak mendizale umezurtz bezala tratatzea nola daramazu? Nekatuta zaude?

Zorionez, uste dut gauditu dudala hori. Lagun ikaragarri onak izan ditut inguruan eta hori gauditze-ko gai izan naiz, baina mendizale-tasun barruan umezurtz bezala tratatzeko joera hori bai sentitu nuen hasieran. Orain jada 8 urte pasa dira eta uste dut hori atzean gertatzen doala.

Zer suposatzen du mendiarekiko zure anaia galtzek?

Hustasun handi bat, bai mendiarekiko, bai eguneroko bizitzarekiko. Dena elkarrekin egiten genuen: eskalatu, afari-parrandak, bizikleta irteerak, mendiko irteerak... elkarrekin pasatzen genuen ia egun guztia. Halere bai uste dut beste edonork sufri dezakeen moduan sufritu dudala nik. Ez naiz anaia galdu duen bakarra, eta uste dut hori denak eramango genukeela antzeratsu.

Eta zure mendiarekiko jarrera aldatu du?

Mendian gertatzen da arriskua joan dagoen neurrian pixka bat horrek kontrapisu handiagoa egiten duela. Baina ezin izan banu gauditu trantze hori ba ez litzateke ezer gertatuko, ez nintzateke mendira joango eta kitto. Eta eguneroko bizitzarako beste edonork anaia galdu duen bezala sufritu behar izango nuen, ez gehiago. Esan

nahi dut azkenean sufritu mundu guztiak sufritzen duela maite duen norbait galtzen duenean eta niri ere horrela tokatu zitzaidan. Mendian arrisku batekin ibiltzen gara eta ia egunerokotasunean anaia-ren irudia nahiko fresko eramatean baduzu buruan, ba mendian irudi hori izugarriko dimentsioak hartzen ditu. Mendian azkenean barne gogoetan askotan joaten da

«Munduko mendizalerik onenari-rikoak ez daude 8.000 metroko mendien karrera horretan»

mendizalea eta egora horretan normala da anaia-ren irudi hori tamainaz handitzea eta arriskua dagoen lekuetan betiere arriskuan pentsatuaztea, gertatu denagatik. Hori gauditzea kostatu zitzaidan, arriskuko lekuetan soltura ez ibiltzea, alegia, beti argi gorria pizten zitzaidalako.

Zer eman dizu mendiak?

Niretzat mendizaletasuna nire bizitzaren ardatza izan da. Eta pixka bat hortik bizikidetzala lantzen da, gizatasuna ere ikasten da, sinismen eta ohitura ezberdinak, harremanak, laguntza... nik uste oso aitzaki polita dela gauza askoren inguruan norbere burua aberasteko.

Mendi ezberdinetan izan zara. Himalaya izan da zuretzako garrantzitsuenak?

Bai izan da jomugarik ohikoena urte askoan, baina gaur egun nahiago dut beste mendikate ba-

tzuetara joatea, Patagoniara, edo Alaskara joatea ere gustatuko litzaidake, adibidez.

Zer ikusten da mendian gora igotzen zarenean?

Niretzat ikusten dena baino gehiago da bizitzen dena. Bizipenak mendiaren itxurarekin baino gehiago datoz mendiarekin auzeratu den bidetik, eta bide hori nola egiten den modutik. Niretzat benetan gauza oroigarriak hortik datoz, mendia polita izan daiteke, baina behar bada aukeratuako bidea aspergarria, edo mendia itsusia da baina aukeratu den ibilbidea ikaragarri polita eta emozio handikoa. Nik uste garrantzitsuenak bidea dela eta bidea nolaplateatzen den, taldea, zailtasunak...

Orain zure bizitza zertan oinarritzen da?

Etzeko lanetan eta denbora librea badaukat eskalatzera joaten naiz, kirol eskalada egitea, hori ikaragarri gustatzen zait.

Zure semeak mendizaleak izatea gustatuko litzazuke?

Ez, beraiek aukera dezatela nahi dutena. Mendira joatean gustatzen dena bazea ba poztuko naiz, baina disfrutatzea joan daitezela.

Zer aporatu dizu mendi bakoitzak igotzea lortzeko?

Gauzarik ederrenak sakrifizioz lortzen direla, benetan kostatzen diren gauzak beste edertasun bat daukatela. Sakrifizioa ezin da diruarekin ordaindu eta horrek balore handia hartzen du.

Heriotzak zer erakutsi dizu?

Edozein izkinatagure artean kei-nuka hemen dabilela.



13°
8°

GOIZA
ARRATS.
BEROENA
HOTZENA

EURIA
EURIA
14°
8°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetaldea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarralde: 687 410 032. ibarralde@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altxo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

- **Alegia.** Ekainaren 1erako artisautza azoka ari dira prestatzen. Parte hartu nahi duenak materiala (egurra, zumea, saskiak, koadro, margolanak, eskualanak, larrua...) Inaxio Begiristain kultur eta kirol etxera eraman dezala (943 654698).
- **Ibarra.** Maiatzaren 7an Izaskungo erromerian egingo den bazkarako txartelak, Biziri nahi elkartearen 25 eurotan (bazkide ez direnek 30 euro).
- **Tolosa.** Sanjoanei buruz hitz egiteko bilerara deitu du Jai Batzordeak Kultur Etxean 19:00etan.
- **Tolosa.** Tolosa eta Baionako ikasleen arteko 4. Poesia emanaldia Leidor aretoan 18:30ean. Gal-tzaundi Euskara Taldeak antolatuta.
- **Tolosa.** Hilaren 28, 29 eta 30ean 10:00etatik 14:30era ziklotoreen errebisioa egingo da Ferialekuan. Txanda eskatu behar da Udaltzainguan (943-675858 zenbakian).

Musika

- **Tolosa.** Willis Drummond eta Cobra musika taldeen kontzertua Bonberenean 22:30ean.

Antzerkia

- **Zizurkil.** Arturrelo di Popolorekin kale antzerkia Joxe Arregi plazan 19:30ean.

Hitzaldiak

- **Tolosa.** Naturaldiaren barruan, Joaquin Araujori eta Miguel Delibes omenaldia: *Ingurumenaren geroa, gure esku* hitzaldia Kultur Etxean 20:00etan bien parte-hartzearekin.
- **Tolosa.** Venezuelako iraultzaz ardiko da Euskal Herria Sozialista aldizkariako kide bat Otsabi gazte lokalean 19:30ean, Apirila Gorriaren baitan.

Zinema

- **Tolosa.** *Persepolis* filma emango dute Leidor aretoan gaur 22:30ean eta bihar 17:00etan.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Tolosa.** Tolosa, M.I. Kale Nagusia, 7. 943 670648.
- **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia, 5. 112.
- **Irurtzun.** Mutiloa, A.M. San Martin, 5. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneren eta iritzien erantzunkizunik.

Mendiak eta inguruak garbi



Duela hiru urte Leitzaingo bidea garbitzen aritu ziren Aldin elkarteak. HITZA

ERREDAKZIOA

Inguruko mendiak eta txokoak txukun topatzea gustatu ohi zaio ibiltariari; baina, lana ere badago horren guztiaren atzetik. Hain zuzen, lan honetan aritu dira azken hiru urteetan Berastegiko Aldin Kultur eta Kirol elkarteak, Leitzaingo eta Berastegi inguruak garbituz. Biharkoan ere, hirugarren urtez, Berastegiko inguruetan mendi garbiketa burutzeko asmoa azaldu dute, *Berastegiko mendiak garbi* lelopeko ekimenaren baitan.

Goizeko 09:00etan plazan elkartzeko deialdia egin dute elkartetik. Urdirain aldera abiatuko dira eta bertan Epeletatik abiatu eta Tortoko errekaraino dagoen basoko zaborra jasoko dute. Traktore eta erremolkeak ere behar dituztela azaldu dute. Elkartetik berastegiaren guztiari dei egin diete ekintza honetan parte har dezaten.

A Agurrak



Zorionak potxolo!

Egoi Agirrezabala Balerdi (Alegia).
Gaur 2 urte. Aiton-amona, osaba-izeba eta gurasoen partetik.



Urte askoan izeba!

Muxu eta besarkada handi handi bat zure iloben partetik.
Egun ona pasa!

EUSKAL HERRIAN ZEHAR Apirilak 20
MENDI IRTEERA Igandea

Urkullu-Ezterenzubira
Behe Nafarroa

08:00etan Ibarako plazan geratuko gara.

Oharra: autobusean apuntatzeko, Denak eta Zubiaurre tabernetan

ANTOLATZAILEAK: BAI EUSKAL HERRIARI eta HAITZETAN RAJU

ANTZERKIA
Gaurko menua

Ane Oteberain
Lilari Fresnoe

APIRILAK 18 • OSTIRALA
22:00etan
VILLABONAKO • GUREA ANTZOKIAN

VILLABONAKO UDALA
KULTURA BATZORDEA